

k:

Kultura



**RAMON SAIZARBITORIA**  
IDAZLEA

Zurriolako jatetxe batean geratu gara. Ez du argazkiak ateratzeko gogo handirik. Etxean zeraman arroparekin jaitxi dela eta jakin izan balu dotoreago agertuko zela esan dio argazkilariori. Interesa eta errespetua pizten ditu Ramon Saizarbitoriak, eta berak badaki. Kafea eskatu dugu argazkilaria eta hirurok. Poliki edan du. Amaituta, hondartzara atera gara irudiak hartzera. Haizeak gogor jotzen du...

## «Gaur egun duindu egin da literatura popularra eta eliteek irakurtzen zutena, desagertu»

Ariane KAMIO | DONOSTIA

...Argazki saio laburra izan da, eta hizketan pasa dira lehenengo istantak. Ohartzera elkarriketa abiatuta dago. Tabernara itzuli gara berriro, haizeagandik babes bila. Mikrofonotik kanpokoak ez direla esan behar eta, tira, grabagailua piztu ondoren kontatutakoak doaz lerrootan. Errespetua zer den... [REC].

### Kekatzan zaituzte kritikak?

Kritika dagoen neurrian... Baina kritika ez da oso librea. Garai batean kritikak Biblia bezala hartzen genituen. Paradigmatikoa da. Lehen "El Pais"-ek zerbait argitaratu ona balitz bezala eta dendara joandakoan, liburua desagertu da. «De lectura imprescindible» esaten dutenean... Baina hainbestetan esaten dute hori! Negozioa bihurtu da asko. Negozioa da gaur egun. Tranposoa. Gehiegi baloratzen da irakurtzea. Irakurri egin behar dela... Ni umea nintzenezan ez zegoen telebistatik, ia irratirik ere ez zegoen, eta irakurri egiten genuen; zer eginik ez zegoen. Baina errieta egiten ziguten segun zer irakurtzen genuen. Orain, berriz, iritsi gara eskolatan umei irakurtzeko zaborra ematera. Eta erantzuna da: «Horrela behintzat irakurri egiten dute». Jode, ba ez dezatela irakurri! Gainera, eskolan dago aukera bakarrik klasikoei topatzeko. Agian, eskolatik aterata jendeak auskalo...

### Frustrazioa eragiten dizu negozioaren zurrumbilo horrek?

Despistatuta sentitzen naiz. Promozioa egin behar da, saldu egin behar da. Garai batean inork ez zizun galdetzen ea liburua asko saltzen zen; ez zitzaion inori burutik pasatzen hori galdetzea, neurri batean jakina zelako gutxi saltzen zela. Baina baita ez zelako hori helburua, gehiago zen kritika ona edo jendea gustatzea. Orain naturalki galdetzen da ea asko saldu duzun.

Generoak ere garrantzia handiago du. Sukaldaritza eta nobela beltza, detektibeak... Genero literatura egin beharra. Eta merkatuari erantzun beharra.

### Horrek ekartzen du literatura errazago bat egin beharra?

Nik uste hor gaudela. Lehen bi literatura zeuden. Bata eliteek irakurtzen zutena eta bestea kontsumo orokorrekoa. Emakumeek maitasun nobelak irakurtzen zituzten... Subliteratura argi eta garbi. Gaur egun duindu egin da literatura popularra, entretentzeko literatura deitzen zaiona. Baina bestea esango nuke desagertu egin dela. Neurri batean egia da garai batean, batez ere 60ko hamarkadan, arte guztietan, gauza zela elite bati proposamenak egitea; gauza zailak, gogorrak... Zinean bertan; ez bazinen aspertzen filma ikusten, ez zen ona. Hori ere ez da kontua. Entretentzeko, literaturak eta nobelak bete behar ditu klabe batzuk. Behar du zerbait nobeleskoa, behar du intriga bat, bestela ez da nobela. Baina hori baino gehiago da. Idaztera bultzatzen zaituena ez da produktu bat saltzea, edo ez luke izan behar; niretzat ez da behintzat.

Orain idazlearen ofizioa, sukaldariena bezala, bihurtu da zerbait mediatikoa eta gauza hauek dakartza. Ikasi behar duzu saltzen. Idazleak bidaiatu egin behar du, aurkezpenak egin behar ditu, mahai inguruetan parte hartu. Pena ematen dit idazle onek nola galtzen duten denbora hemendik hara aurkezpenak egiten. Bilbotik Almerira, Mexikora, buelta...

### Liburuek ibilbide luzeegia dute?

Saldu behar duzuna saldu behar duzu oso denbora laburrean. Ez daukazu denbora asko. Esfortzu handi hori egin behar da.

Gaur egun ez dago soprano itsusirik. Pianista guztiak, denak dira guapoak. Hori da giroa gaur egun. "No es país para sosos" ETBn. Nik soso izatea aldarrikatzen dut; pasatzen ari gara nor

bere buruaz hain pozik agertzen. Benetan penagarria iruditzen zait. Euskaldunok bagenuen estilo bat eta uste dut galdu egin dezakegula.

Hori da gehien promozionatzen dutena, "No es país para sosos" eta beste bat, bi tipo, esango nuke kultura eskasekoak, deiadarka bata besteari, ikurri bat jartzen, ez dakit ze lekutan, dirudienez gainera kostu handia izango duena. "El conquis"...

### Ikusle kuota altuena duen saioa da...

Penagarria iruditzen zait. Hori da liburuekin gertatzen dena. Espiral bat dago, birtuosoa edo biziosoa, baina gehien promozionatzen dena da gehien saltzen dena, eta gehien saltzen dena da gehien promozionatzen dena. Liburu denda batera joaten zara eta Reverte edo ez dakit zer "de Grey" izango duzu no-nahi. Berez bakarrik salduko litzatekeenari egiten zaio promozio handiena.

### Elena Ferrante idazle anonimok esaten du liburu baten bizitza ez duela zertan idazleak promozionatu. Liburuak benetan interesa badu, liburuak berak egingo duela bidea irakurleaganaino.

Nik uste kontratuetan sartzen dela idazleek zenbat denbora eman behar duten promozioetan. Hori grabea izanagatik ere, irakurleak bidaiatzen duen bitartean eta irakurleekin dagoen bitartean esperientzia bat irabaziko du ballagarri izango zaiona idazteko. Baina ia hori baino okerragoa da liburu dendetatik ausente bazaude bi hiru urte baino gehiago, zure izenak indarra galtzen duela. Ez da aktibo bat. Izena oso garrantzitsua da. Jendeak ez zaitu gogoan. Idazleak asko produzitu behar du, etengabe egon behar duzu liburu dendetan. Horrek horrela izan behar duela? Bale. Nik faltan botatzen dudana da ez edukitzea beste eremu argi bat, lehen zegoena bezalakoa. Nahiz eta beste subliteratura hori



egon, bazegoen lekua ere beste literatura klase batentzat. Ba- zeuden kritikak eta kritikoak, eta idazle batzuk nahiago zute- nak dirua baino unibertitate inguruan estimatua edo erres- petatua izatea. Orain ez. Orain seguru "Grey"-ren zera horri te- si doktoralak eskaintzen zaiz- kiola.

#### Lekuz kanpo sentitzen zara?

Ez nago munduan. Nire kasuan ez dut arazorik. Argitaratzen dut zortzi urtetan behin. Merkatutik kanpo nago. Eta edadeagatik ere zorritzarrez ez daukat kezkarik; egin dut egin behar nuena. 35 urte banitu kezkatuta egongo nintzateke, zer egin...

#### Merkatuaren arabera idazteko gai izango zinateke?

Ez dakit zer egingo nukeen. Pen- tsatzen dut ezetz. Zorritzarrez edo zorionez, garai batekoa nola nai-

zen, izen bat badu eta errespetu- bat, eta abar, baina hori ez banu? **Euskal literatura gaztelaniazko merkatuan sartzea arriskutsua al da?**

Horrek zer dakar? Bi merkatu daude; bat, betikoa, gure liburuak Madrilen. "Guardame bajo tierra" Madrilen nola irakurtzen den. Baditugu irakurleak Madri- len. Baina horiek dira parte bat. Besteak dira hemengo, bertako, erdaldunak, euskaraz ez dakite- na. Kurioso da horiengana iristea. Nik uste lortu dugula zerbait. Errespetuz hartzen dute euskal literatura. Euskal litera- tura ez da jada apaizek eta frai- leek egiten zutena, bigarren mailakoa. Ezta inondik ere.

#### Orain biblioteca estreinatuko duzu Ereinekin. Zer pentsatua ematen dizu horrek?

Gehiegizkoa iruditzen zait. Ez daukat obra zabal bat ere. Pon-

poxoegia iruditzen zait. Estima- tzen diet. Asko ez saltzea ez zait inportatzen; kezkatzen nauena da li- buruak desagertzea. Norbaitek nahi eta ez egotea. Gertatu izan zait Baroja erosi nahi eta ez ego- tea. Tokatu zait Dickens erosi nahi eta ez topatzea. Euskarazko tituluekin zer esanik ez, liburu- denda konkreturen bat izan ezik. Zeure hirian egon behar zenukeela iruditzen zait; txoko- ren bat zure obra edukitzeko. Al- derdi horretatik liburuari bigar- ren aukera bat emateak asko poztzen nau. Ez dut saltzeko ega- rririk, baina bai penatzen nau norbaitek nire zerbait irakurri nahi eta ezin izatea.

#### Idazkuntzan zein momentutan zaude?

Idazteko, ez nekien baina ener- gia behar da. Nobela konplexu bat idazteko, buruan eduki be- har duzu, mundu hori buruan

“

*Idazterakoan nabaritzen dut fakultateak galdu ditudala. Baina, era berean, lehen ez bezala, orain pozik jartzen naiz idazten goizetan, gosaldutik ondoren. Eguna betetzeko modu bat badelako.*

“

*Orain idazlearen ofizioa bihurtu da zerbait mediatikoa. Pena ematen dit idazle onek nola galtzen duten denbora hemendik hara aurkezpenak egiten. Bilbotik Almeriara, Mexikora, buelta...*

“

*Nire belaualdikoei ze azkar ahaztu zaien beste era batera bizitzen jakin genuela, eta duintasunez. Orain edozein dago bere buruaz harro eta kulpak, beste bati. Indibidualki gure bizitzaren kargu hartu behar dugu*

eduki behar duzu, eta gero eta gehiago kostatzen zait. Idazte- rakoan nabaritzen dut fakulta- teak galdu ditudala. Eta gero hainbat denbora kostatzen zait idaztea, saihestu dut egitasmo luze eta konplexuetan sartzea. Denbora mugatua dut. Baina era berean, lehen gertatzen ez zitzaidan bezala, orain pozik jartzen naiz idazten goizetan, gosaldutik ondoren. Eguna bete- tzeko modu bat badelako. Le- hen hainbat gauza nituen egi- teko eta idaztea, ba bat gehiago. Orain, goizetan ener- gia hor joaten zait eta peligro- soa da ze, esango nuke, esateko gauza handirik ez banu ere, idatzi egingo nukeela, beste batzuek sudokua egiten di- tuzten bezala, entretentzeko. Kuidadoa eduki behar dut zer produzitzen dudana.

Hasi nintzen "Gordé nazazu"- rekin bezala ipuinekin, ez sar- tzeko ur handietan, eta egin ni- tuen pare bat edo hiru, eta sartu nintzen beste batean, eta hori luzatuz joan zait. Gustura ego- ten naiz luzatzen, luzatzen... eta bihurtu zait nobela moduko bat. Orain ari naiz horri buelta bat ematen.


#### Hori da udaberrian argitaratu- ko duzuna?

Horrek izan beharko luke, baina ez dakit zer egingo dudana. Ez da- kit. Konpontzen ari naiz, buel- tak ematen. Ez dut gogo handi- rik. Ikusi behar dut, buelta bat eman eta utzi. Eta irakurri. Eta erabaki hori hartzeko ez naiz inortaz fidatzen. Ez dut harroa izan nahi, baina gauza hortera bat idazteko ez dut uste naizen- nik. Hori esaten diot behintzat neure buruari. Baina ez dakit zer egin dudana, ez diot eman inori oraindik. Egunen batean editoreari eman beharko diot.

#### Gizarteak dekadentzia kutsu bat dauka. Horrek eragiten di- zu? Edo agian beste modu bate- an ikusten duzu?

Gizartea oso arraro ikusten dut. Desberdintasunak gero eta han- diagoak dira, kastak. Donostian bertan, burgesia diskretua zen, dotorezia diskretua, hori ginen gipuzkoarrok. "Sosos". Leku ba- tera sartzerakoan txapela ken- tzen zuena, ez orain bezala, prentsaurreko barruan eta txapela jantzita.

Eta ikusten dut gero eta tole- ranteagoak garela desberdinta- sunen aurrean; bakoitza berera. Eta ikusten dudana ere da de- nok garela kaltetuak, denok gara biktimak. Zuri hau gertatu zai- zu, ba niri hau.... Denok dugu zerbait biktima izateko. Zure ai- tona fusilatua izan zen, ba nire- ari bonba jarri zioten... Denok daukagu motiboa kaltetuak sen- titzeko, denok gurera. Denok daukagu zerbait aldarrikatze- ko eta aberats berriak izan gara eta memoria txikikoak. Nire belau- aldikoei ze azkar ahaztu zaien beste era batera bizitzen jakin genuela, eta duintasunez. Edo- zein dago bere buruaz harro eta kulpak, beste bati. Indibidualki geure bizitzaren kargu hartu be- har dugu.



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS